

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko abenduaren 13tik 19rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/12/18

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA.** Lan eta Enplegu Saila. Erabakia, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. 2025-2027 urteetarako Bizkaiko Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea xedatzen duena (hitzarmen kodea 48000715011981). **194 Xedapena- 49 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/12/13

- **GARRAIOETAKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA.** Aireko nabigazioa. Ebazpena, 2025eko urriaren 17koa, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren Zuzendaritzarena, 2025eko uztailaren 11ko Ebazpenean atzemandako akatsak zuzentzen dituen; ebazpen horren bidez, baldintza berriak ezartzen dira EASA motako ziurtagiria duten eta operazio eskusiboak egiten dituzten aireontzien aire-nabigagarritasuneko ziurtagiriak eta aire-nabigagarritasuna aztertzeko ziurtagiriak egiteko, eta indarrak gabe uzten dira Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko ekainaren 18ko Ebazpena eta Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren Zuzendaritzaren 2015eko apirilaren 29ko Ebazpena. **25519 Xedapena- 1 or.**
- **ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOA. Laguntzak.** 1135/2025 Errege Dekretua, abenduaren 10ekoa, Estatuaren konturako laguntza-lerroaren baldintzak zehazten dituen, gazteentzako eta kolektibo kalteberentzako etxebizitzaren alokairua ordaintzen ez bada alokairu hori ordaintzeko. **25520 Xedapena- 5 or.**

2025/12/16

- **GORTE NAGUSIAK.** Presako neurriak. Ebazpena, 2025eko abenduaren 11koa, Diputatuen Kongresuarena, honako hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 13/2025 Errege Lege Dekretua, azaroaren 25ekoa, Sumendien erupzioek eragindako kalteen ondoren La Palma uhartearen suspertze ekonomiko eta sozialerako presako neurri osagarriak hartzen dituen **25693 Xedapena- 1 or.**
- **Ebazpena, 2025eko abenduaren 11koa,** Diputatuen Kongresuarena, honako hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 14/2025 Errege Lege Dekretua, abenduaren 2koa, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituen. **25694 Xedapena- 1 or.**

- **Ebazpena, 2025eko abenduaren 11koa**, Diputatuen Kongresuarena, honako hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 15/2025 Errege Lege Dekretua, abenduaren 2koa, Toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari laguntzeko presako neurriak hartzen dituen eta abenduaren 5eko

1007/2023 Errege Dekretua aldatzen duena. Abenduaren 5eko 1007/2023 Errege Dekretuaren bidez onartu egiten da enpresaburuen eta profesionalen fakturazio-prozesuak jasaten dituzten sistema eta programa informatikoek edo elektronikoei hartu beharreko betekizunak eta fakturazio-erregistroen formatu-estandarizazioa ezartzen dituen erregelamendua. **25695 Xedapena- 1 or.**

- **GARRAIOETAKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA.** Aireontziak. Honen akats-zuzenketa: 1029/2025 Errege Dekretua, azaroaren 12koa, Aireontzi Zibilen Matrikulazioaren Erregelamendua onartzen duena eta irailaren 20ko 765/2022 Errege Dekretua —aireontzi motordun ultrarinen erabilera arautzen duena— aldatzen duena. **25696 Xedapena- 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2025/12/16

- **XEDAPEN OROKORRAK. ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA. 5383.** 232/2025 DEKRETUA, abenduaren 2koa, guraso bakarreko familien araubidea ezartzen duena. **05383 Xedapena 13 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2025/12/19

- **BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK.** Euskadiko Administrazioak. **EUSKO JAURLARITZA (EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako erainkuntzaren eta herri-lanen sektoreko hitzarmen kolektiboaren 2026. urterako lan egutegia. **3643 edapena- 4 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/12/15

Bizkaiko Batzar Nagusiak.

- **5/2025 FORU ARAUA, abenduaren 12koa**, zeinaren bidez, batetik, arautzen baita zenbait finantza-entitateren interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga, eta, bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen baita apirilaren 29ko 3/2025 Legeak ekonomia itunean eginiko aldaketetara, eta beste zerga aldaketa batzuk egiten dira. **1367 Xedapenba- 23 or.**
- **6/2025 FORU ARAUA, abenduaren 12koa**, honen bidez, batetik, talde multinazionalei eta talde nazional handiei zuzendutako gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko zerga osagarri bat ezartzen da, eta, bestetik, sozietateen gaineko zergari buruzko foru araua eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru araua aldatzen dira. **1369 Xedapena- 88 or.**

2025/12/16

Ogasun eta Finantza Saila

- **Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 601/2025 FORU AGINDUA, abenduaren 5koa**, zeinaren bidez foru-agindu hauek aldatzen baitira: lehenik, 1578/2021 Foru Agindua, irailaren 24koa, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuarena, zeinaren bidez pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen baitira; bigarrenik, 1582/2021 Foru Agindua, irailaren 24koa, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuarena, zeinaren bidez sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen baitira, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik; hirugarrenik, 1482/2020 Foru Agindua, irailaren 9koa, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuarena, zeinak software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen baititu, eta, laugarrenik, 422/2024 Foru Agindua, azaroaren 12koa, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuarena, zeinaren bidez onetsi egiten baitira sozietateen gaineko zergaren peko zergadunek egiten dituzten eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko kontabilitate-mugimenduen kapituluaren zehaztapen funtzionalak eta teknikoak. **1351 edapena- 91 or.**
- **Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren 627/2025 FORU AGINDUA, abenduaren 15koa**, zeinaren bidez onesten baitira 770 eredua, «Zenbait finantza-entitateren interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga. Autolikidazioa», eta 771 eredua, «Zenbait finantza-entitateren interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga. Ordainketa zatikatua», eta ezartzen baitira haiek aurkezteko baldintzak eta prozedura. **1378 Xedapena 8 or.**

2025/12/19

- **Ogasun eta Finantza Saila.** Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren 627/2025 FORU AGINDUA, abenduaren 15koa, zeinaren bidez onesten baitira 770 eredua, «Zenbait finantza-entitateren interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga. Autolikidazioa», eta 771 eredua, «Zenbait finantza-entitateren interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga. Ordainketa zatikatua», eta ezartzen baitira haiek aurkezteko baldintzak eta prozedura.(Oker zuzenketa). 1417 Xedapena- 8 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2025/12/15

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 22/2025 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzekoa. 08389 Xedapena- 27 or.

2025/12/19

- **ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** 23/2025 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuan aurreikusitako zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzekoa, azkeneko foru dekretu horren bidez arautzen baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea. 08574 Xedapena- 2 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....
MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO